

Euskarazko izen arrunten proposamena  
Ciconiidae familiarentzat

*6 generotako 20 espezierentzat proposamenak*



**EUSKAL  
BATZORDE ORNITOLOGIKOA  
COMITÉ ORNITOLÓGICO  
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,  
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko irailean

Euskal Batzorde Ornitologikoa

# Izen arrunten proposamena Ciconiidae familiarentzat

6 genero eta 20 espezie

Zikoinen familian 6 generotako 20 espezie ditugu, gehienak euskarazko izen arruntik gabeak ez Euskaltermen eta ez euskarazko hiztegi nagusietan.

Europan inoiz ikusi diren hegazti-espezieen zerrendan badira beste kontinente batzuetatik iritsitako hainbat hegazti, besteak beste Ciconidae familiako kideak.

Europako izendegia osatze aldera egindako lanaren harira, eta behin familia honetako kide batzuen izenak proposatzen hasita, erabaki dugu aprobeixatu daitekeela familia osoa izendatzeko, besteak beste, kide ezagun ugari dagoelako talde honetan eta familia txiki samarra delako (eta, hartara, izendatzeko erraza).

Izen arruntak proposatzeko orduan "*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*" dokumentuan zehazten diren jarraibideak hobetsi ditugu.

## Ciconiidae familia

Munduko inguru ugarian bizi diren hegaztiak dira, nahiz eta gehienetan Afrika eta Eurasiako hezeguneen inguruan aurkituko ditugun, urari nahiko lotuta. Zikonidoek distantzia handiak egin ditzakete bazka-hegaldietan edo migratzean. Moko handi eta koloretsuak izan ohi dituzte eta eztarri-lepo koloretsu eta biluzi samarrak. Habia handiak eraikitzen dituzte zuhaitz eta teilatuetan.

Zikonidoek, oro har, eremu hezeetan ehizatzen dute, ukimenezko bazka-teknikak erabiliz ornodun txikiagoak harrapatzeko, hala nola arrainak, anfibioak, narrastiak eta karraskariak; espezie batzuen kasuan intsektuak, moluskuak eta krustazeoak ere azaltzen dira euren dietan. Espezie batzuk sarraskijaleak ere badira eta larreetako suteen biktimak ere harrapatzen dituzte.

Familia honetako kideen izen arruntei dagokionez:

- **Familia txikia** da; genero askotxo ditu (6), baina espezie gutxi (20).
- Europako hizkuntzetan izen generiko zabalak erabiltzen dira zikonidoen familia osoarentzat, hala nola **zikoina** tankerakoak hizkuntza erromantzeetan (cigüeña ES, cigogne FR, cigonya CA, cigogna IT, eta abar) eta **stork** antzekoak Europa erdialdekoetan (stork EN, DA, NO...; Storch DE).
- Hala ere, genero bakoitzak, oro har, izen generiko berezi bat ere badu inguruko hizkuntza gehienetan, genero bakoitzeko kideak modu zehatzean izendatzen dituena.
- Izen generikoen kasuan bi multzotako izenak nagusitzen dira. Batetik, tokian tokiko hizkuntzetatik eratorritako izenak ditugu, hala nola, **marabu** edo **jabiru**, Afrikako eta Ameriketako hizkuntzetatik eratorritako izenak. Bestetik, izen zientifikotik eratorritako **tantalo**, **mikteria** edo **zikoina** bezalakoak (hizkuntza bakoitzaren formetara egokituta).
- Espezifikatzaileei dagokienez, familia honetako kideek nahiko lumaje eta kolore bereizgarria izan ohi dute eta **izen deskriptiboak nagusitzen** dira. Hala ere, **jatorri geografikoa ere oso baliabide erabilia** da familia honetako kideak bereizteko, normalean espeziazioa kontinenteka gertatu baita.

# Ciconiidae familiako espezieentzat proposamenak

## Leptoptilos generoa

Inguruko hizkuntza gehienetan (ES, FR, CA, EN, IT, DE, NL eta abar) **MARABU** izena erabiltzen da genero honetako kideentzat (batzuentzat, bederen). Ustez arabierako *murabi* (*marabout*) hitzetik eratorria da. Euskaraz ere **marabu** proposatzen dugu genero honetako 3 espezieentzat (historikoki horixe erabili da euskaraz, nahiz eta generiko bezala).

### *Leptoptilos crumenifer*

Marabú Africano (ES), Marabou Stork (EN), Marabout d'Afrique (FR), Marabú africà (CA).

- Genero honetako kideen artean Afrikan bizi den bakarra (beste biak asiarrak dira).
- Inguruko hizkuntza gehienek ezaugarri hori nabarmentzen dute izen arruntean.

Proposamena: **marabu afrikar**

### *Leptoptilos dubius*

Marabú Argala (ES), Greater Adjutant (EN), Marabout argala (FR), Marabú caragroc (CA).

- Oso handia.
- Indiako Assam eskualdean bizi da. Bertako hizkuntza den assameraz “hargila” (hezur-irenslea) deitzen diote. FR eta ES tokiko izen horretatik abiatu dira izen arrunta zehazteko.
- Hegaztien izen arruntak proposatzeko orduan “handi” edo “arrunt” bezalako espezifikatzaile erlatiboak saihestea komeni denez, eta tokiko izenak erabiltzea baliabide egokia denez, euskaraz ere frantsesaren eta gaztelaniaren bidea lehenetsiko genuke.

Proposamena: **hargila marabu**

### *Leptoptilos javanicus*

Marabú Menor (ES), Marabout chevelu (FR), marabú collgroc (CA), Lesser Adjutant (EN)

- Hau ere asiarra, baina *L. dubius* baino nabarmen txikiagoa eta leporia.
- Inguruko hizkuntzetan 2 ezaugarri horiek erabili dira espezie hau izendatzeko.
- Euskarazko izena proposatzeko orduan espezifikatzaile deskriptiboena hobestea proposatzen dugu.

Proposamena: **marabu leporia**

Leptoptilos 3 species



Lesser Adjutant *Leptoptilos javanicus*



Marabou *Leptoptilos crumenifer*



Greater Adjutant *Leptoptilos dubius*

## Jabiru eta *Ephippiorhynchus* generoak

Estuki lotutako bi genero hauek **JABIRU** izenez ezagutzen dira inguruko hizkuntza gehienetan. Izen hori guaranieratik dator eta nolabait “lepazabal” esan nahi du. Euskaraz ere horren alde egingo genuke.

Genero hauetako 3 espezieak 3 kontinentetan banatzen dira, bata Ameriketan, bestea Afrikan eta hirugarrena Asia-Ozeanian. Hiru espezieak desberdintzeko orduan, inguruko hizkuntza gehienek jatorri hori azpimarratzen dute (izen zientifikoek bezalatsu). Ezaugarri deskriptibo bereizgarri nabarmenak ere badaude 3 espezieak izen deskriptiboekin izendatu ahal izateko, baina kasu honetan jatorri geografikoa erabat diagnostikoa denez eta inguruko hizkuntzekin koherentzia interlinguistikoa gordetze aldera, espezifikatzaile geografikoen alde egin dugu.

### *Jabiru mycteria*

Jabiru americano (ES), Jabiru d'Amérique (FR), Jabiru (EN), Jabirú americà (CA).

- Izen zientifikoan ere guaranierako “jabiru” izena dauka.
- Amerikarra den espezie bakarra.

Proposamena: **jabiru amerikar**

### *Ephippiorhynchus asiaticus*

Jabirú Asiático (ES), Black-necked Stork (EN), Jabiru d'Asie (FR), Jabirú asiàtic (CA).

- Asiarra den espezie bakarra. Izen zientifikoak ere horixe adierazten du.

Proposamena: **jabiru asiar**

### *Ephippiorhynchus senegalensis*

Jabirú Africano (ES), Saddle-billed Stork (EN), Jabiru d'Afrique (FR), Jabirú africà (CA).

- Afrikarra den espezie bakarra. Izen zientifikoan ere bere jatorri afrikar hori azpimarratzen da.

Proposamena: **jabiru afrikar**



## Ciconia generoa

Familia osoari izena ematen dion generoa da Ciconia. Latinezko izen zientifikotik hartzen dute generiko arrunta inguruko hizkuntza erromantze guztiek, hala nola cigüeña (ES), cigogne (FR), cigonya (CA) eta cigogna (IT).

Euskaraz ere izen horrek izan du tradizioz handiena ahoz zein idatziz. Azken urteotan amiamoko generikoa ere asko zabaldu den arren, jatorriz Ardeidoak izendatzeko izena izan da amiamoko eta zikoinaren alde egingo dugu izen arrunta zehazteko orduan.

Genero honetako 8 espezieak zuri-beltzak dira, baina euren artean alde handia dago koloreei dagokienez. Hiru talde handitan bana daitezke eta izen arruntak ezartzeko orduan ere horrelaxe aztertu ditugu:

- Hiru espezie ia zuriak dira, hego beltzekin (*C. ciconia*, *C. maguari*, *C. bobyciana*).
- Beste hiru ilunak dira eta beltza nagusitzen da sabelalde zuriaren gainetik (*C. nigra*, *C. abdimii*, *C. stormi*). Aurpegiaren koloreak desberdintzen ditu, gorria, urdina eta horia baita, hurrenez hurren.
- Bukatzeko, bi espezie zuri-beltzak dira eta taxonomikoki eta itxuraz erlazionatuta daude (*C. microscelis* eta *C. episcopus*).

### *Ciconia ciconia*

Cigüeña blanca (ES), Cigogne blanche (FR), White Stork (EN), Cigonya blanca (CA), Weißstorch (DE), Cicogna bianca (IT).

- Europako eta Euskal Herriko zikoina tipikoa, ia erabat zuria, moko gorri eta hego zuri-beltzekin. Aspaldi dauka zehaztuta euskarazko izen arrunta.

Proposamena: **zikoina zuri**

### *Ciconia maguari*

Cigüeña maguari (ES), Cigogne maguari (FR), Maguari Stork (EN), Cigonya maguarí (CA), Maguaristorch (DE).

- Hau ere zikoina zuria da, Europakoaren oso antzeko ahaide amerikarra.
- Izen zientifikoan azaltzen den 'maguari' izendapena tupi hizkuntzatik hartua da eta 'moko-astuna' esan nahi du. Hizkuntza gehienek hortik hartu dute izen espezifikoak. Euskaraz ere halaxe proposatzen dugu.

Proposamena: **maguari zikoina**

### ***Ciconia bocyana***

Cigüeña Oriental (ES), Cigogne orientale (FR), Oriental Stork (EN), Cigonya oriental (CA), Schwarzschnabelstorch (DE).

- Zikoina zurien multzoko hirugarren kidea, kasu honetan asiarra.
- Bere jatorri asiarrarengatik “ekialdetar” izendatu dute inguruko hizkuntza gehienek.
- Alemanak, berriz, “zikoina mokobeltz” izendatu du, ezaugarri hori duen zikoina bakarra baita (eta zikoina zurien artean oso bereizgarria).
- Eremu geografikoa edo jatorria zehazten duten izenak baino egokiagoak direnez izen deskriptiboak, guk ere horren alde egin dugu, alemanaren bidetik.

Proposamena: **zikoina mokobeltz**

.....

### ***Ciconia nigra***

Cigüeña negra (ES), Cigogne noire (FR), Black Stork (EN), Cigonya negra (CA).

- Eurasia osoan eta Afrikan bizi den zikoina.
- Kolore aldetik zikoinarik beltzena, inguruko hizkuntzetako izen arruntetan ere halaxe azpimarratzen da eta euskaraz ere aspaldi zehaztutako izena dugu hau.

Proposamena: **zikoina beltz**

### ***Ciconia stormi***

Cigüeña de Storm (ES), Cigogne de Storm (FR), Storm's Stork (EN), Cigonya de Storm (CA).

- Zikoina beltza, musu hori oso nabarmen eta bereizgarria dauka hegazti honek.
- Inguruko hizkuntzetan izen zientifikoa hartu dute izen arrunta finkatzeko orduan, baina eponimoak saihestea komeni denez, eta *Ciconia abdimii* izendatzeko ere bidea errazten digunez, izen deskribatzaile baten alde egitea proposatzen dugu.

Proposamena: **Storm zikoina**

### ***Ciconia abdimii***

Cigüeña de Abdim (ES), Cigogne d'Abdim (FR), Abdim's Stork (EN), Cigonya d'Abdim (CA).

- Zikoina beltzen artean musu urdina duen espezie bakarra da.
- Gainera, zikoinen artean txikiena da (1 kg inguru). Intsektuz elikatzen da ehuneko handi batean.
- Kasu honetan ere eponimoaren alde egin dute inguruko hizkuntzek, baina gure kasuan izen deskribatzailea proposatzen dugu.

Proposamena: **Abdim zikoina**

.....

## *Ciconia microscelis*

Cigüeña lanuda africana (ES), Cigogne à pattes noires (FR), African Woolly-necked Stork (EN), Cigonya collblanca africana (CA), Afrika-Wollhalsstorch (DE).

- Elkarren artean estuki erlazionatutako bi espezie daude zikoinen artean, *C. microscelis* eta *C. episcopus*. Biak izendatzeko orduan ere lotura hori aintzat hartzea proposatzen dugu, inguruko hizkuntzek bezala.
- Bi bide jarrai daitezke:
  - 1) generiko binomial bat eman bi espezieei eta jatorri geografikoaren bidez ezberdindu (afrikar vs. asiar);
  - 2) euren artean bereizteko dagoen ezaugarri fisiko garbiena erabili (musubeltz vs. kaskabeltz).
- Inguruko hizkuntza gehienek 1. bidea hartu dute eta, koherentzia interlinguistikoa mantentze aldera, trinomioak sortu arren, guk ere horixe lehenetsiko dugu.

Proposamena: **zikoina lepozuri afrikar**

## *Ciconia episcopus*

Cigüeña lanuda asiática (ES), Cigogne épiscopale (FR), Asian Woolly-necked Stork (EN), Cigonya collblanca asiática (CA), Asien-Wollhalsstorch (DE).

- Elkarren artean estuki erlazionatutako bi espezie daude zikoinen artean, *C. microscelis* eta *C. episcopus*. Biak izendatzeko orduan ere lotura hori aintzat hartzea proposatzen dugu, inguruko hizkuntzek bezala.
- Bi bide jarrai daitezke:
  - 1) generiko binomial bat eman bi espezieei eta jatorri geografikoaren bidez ezberdindu (afrikar vs. asiar);
  - 2) euren artean bereizteko dagoen ezaugarri fisiko garbiena erabili (musubeltz vs. kaskabeltz).
- Inguruko hizkuntza gehienek 1. bidea hartu dute eta, koherentzia interlinguistikoa mantentze aldera, trinomioak sortu arren, guk ere horixe lehenetsiko dugu.

Proposamena: **zikoina lepozuri asiar**






## Mycteria generoa

Inguruko hizkuntza erromantze gehienetan (besteak beste, ES, FR, CA, IT) **TANTALO** generikoa erabiltzen da genero honetako kideentzat. Garai bateko izen zientifikotik hartutako izena da eta mitologia greziarreko Tantalos pertsonaian du jatorria.

Euskaraz izendatzeko orduan ere **tantalo** generikoaren alde egitea proposatzen dugu. Egungo izen zientifikoa ere erabilgarria da, **mikteria**, eta baita **zikoina mokohori** bezalako generiko deskriptiboago bat. Hala ere, esan bezala, eta inguruko hizkuntzen eredu berbera jarraitze aldera, **tantalo** hobetsi dugu.

Jabiru eta Ehippiorhynchus generoetan bezala, Mycteria generoan ere espeziazioa kontinenteka gertatu da eta inguruko hizkuntzetan aurkituko ditugun izen arruntek jatorri hori azpimarratzen dute sarri askotan. Euskaraz ere horixe da gure proposamen nagusia, nahiz eta izen deskribatzaileak finkatzeko aukera ere baden, espezie bakoitzak bere ezaugarriak dituelako kolore aldetik.



### ***Mycteria americana***

Tántalo americano (ES), Wood Stork (EN), Tantale d'Amérique (FR), Tàntal americà (CA).

- Amerikarra den espezie bakarra. Izen zientifikoak ere jatorri hori azpimarratzen du.

Proposamena: **tantalo amerikar**

### ***Mycteria ibis***

Tántalo africano (ES), Yellow-billed Stork (EN), Tantale ibis (FR), Tàntal africà (CA).

- Afrikarra den espezie bakarra. Hizkuntza gehienek jatorri hori azpimarratzen dute.

Proposamena: **tantalo afrikar**

### ***Mycteria leucocephala***

Tántalo indio (ES), Painted Stork (EN), Tantale indien (FR), Tàntal l'Índia (CA).

- Indian bizi den tantalo espeziea. Hizkuntza gehienek jatorri hori azpimarratzen dute.

Proposamena: **tantalo indiar**

## ***Mycteria cinerea***

Tántalo blanco (ES), Milky Stork (EN), Tantale blanc (FR), Tàntal blanc (CA).

- Asia hegoekialdean aurkituko dugun espeziea, Indonesia aldean. Tantaloen arteko espezierik zuriena. Inguruko hizkuntza gehienek ezaugarri hori azpimarratzen dute.

Proposamena: **tantalo zuri**

## Anastomus generoa

Zikonidoen arteko genero honetako kideek ezaugarri fisiko nabarmena dute, mokoia ez baitute erabat ixten. Ezaugarri hori dela eta, inguruko hizkuntza nagusiek mokoaren itxura berezi hori baliatuz sortu dute izen generikoa (ez dute baliatu ez izen zientifikoa, ez tokiko izendapena, ez bestelakorik); picotenaza, openbill, bec de tenalles, bec-ouvert, gaper, klaffschnabel eta abar erabiltzen dituzte.

Euskaraz ere antzeko ereduren bat baliatzea proposatzen dugu izen generikoa izendatzeko, hala nola, matxarda-moko, aitzur-moko, kurrika-moko, moko-ireki, matxarda-zikoina edo antzeko besteren bat. Alderdi linguistikotik ez dugu aurreikusten arazo berezirik, txorien euskarazko izen arrunten artean ohiko direlako antzeko egitura linguistikoak, nahiz eta gehienetan espezifikatzaile gisa agertzen diren: elano miru-buztana, miru amu-mokoia, ahate ziri-buztana, istingor orratz-buztana... Generikoen artean ere badugu, halere, adibideren bat, besteak beste mailuburua (*Scopus umbretta*). Hori bai, erabaki beharko da ea hitz-elkarketa horiek marratxoarekin erabili ala ez (matxardamoko vs. matxarda-moko, aitzurzikoina vs. aitzur-zikoina, eta abar). Mailuburu aspaldi finkatutako izen generikoa izanik (UZEI, 1984), kasu honetan guk ere marratxorik gabeko formak proposatu ditugu.

Espezifikatzaileari dagokionez, genero honetako 2 espezieak 2 kontinentetan banatzen dira, bata Afrikan eta bestea Asian. Gainera, bata zuria da eta bestea beltza, Ciconia generoko zikoina zuria eta zikoina beltza bezalatsu. Espezifikatzaile deskribatzailea zein geografikoa izan litezke argigarriak; deskribatzaileen alde egin dugu guk.

### ***Anastomus oscitans***

Picotenaza Asiático (ES), Asian Openbill (EN), Bec-ouvert indien (FR), bec de tenalles asiàtic (CA)

- Jatorri asiarrekoa eta zuria.

Proposamena: **matxardamoko zuri** / asiar

### ***Anastomus lamelligerus***

Picotenaza Africano (ES), African Openbill (EN), Bec-ouvert africain (FR), bec de tenalles africà (CA)

- Jatorri afrikarrekoa eta beltza.

Proposamena: **matxardamoko beltz** / afrikar

#### **Anastomus** 2 species



**Asian Openbill** *Anastomus oscitans*



**African Openbill** *Anastomus lamelligerus*

# Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Dokumentu honen lehenengo bertsioa Asier Sarasuak ondu zuen eta, ondoren, beste 8 txorizale euskaldunen artean banatu eta aztertu da: Aitor Galarza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur, Maite Laso, Miel Mari Elozegi eta Aitor Leiza.

Hauek izan dira eztabaidagai izan ditugun puntu nagusiak eta hartutako erabakiak:

- *Leptoptilos dubius* (hargila marabua) “marabu handi” ere izan zitekeen, eta *Leptoptilos javanicus* (marabu lepahoria) “marabu txiki”. Espezifikatzaile erlatiboak saihestea erabaki dugu.
- Jabiruentzat izen deskriptiboagoak sortzeko aukera ere badago, adibidez, “jabiru lepazabal”, “jabiru lepaberde” eta “jabiru gorri-beltz”, baina iruditu zaigu kasu honetan eremu geografikoa argigarriagoa eta erosoagoa dela.
- *C.stormii* eta *C. abdimii*. Oro har eponimoak saihesteko joera dugun arren, *C.stormii* eta *C. abdimii* bikotearen kasuan horien alde egitea erabaki dugu, inguruko hizkuntza guztietan eta izen zientifikoetan azaltzen baitira pertsona-izen horiek. Iruditzen zaigu kasu honetan egokiagoa dela bide hori, izen deskribatzaile berriak sortzen hastea baino (zikoina musuhori eta zikoina musu-urdirin, adibidez, hurrenez hurren).
- *Anastomus* generoan bi aukera zeuden espezifikatzaileak sortzeko, kolorea edo jatorri geografikoa. Zikoinen eredia jarraituz, matxardamoko zuri/beltz bikotea hobetsi dugu, baina matxardamoko asia/afrikar ere izan zitezkeen, hurrenez hurren, *A. oscitans* eta *A. lamelligerus*.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientzia-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernua).

## Euskal Batzorde Ornitologikoa

